

## Xedapen Orokorra

### HERRIZAINGO SAILA

978

AGINDUA, 2010eko otsailaren 8ko, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bingo Jokoaren Araudiko bingo-jokoaren modalitateei aplikatu beharreko kentze-ehunekoak zehazten dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia hirugarrenez aldatzen duen 620/2009 Dekretuak ematen duen erredakzioaren arabera, araudi horrek 29.4., 31., 33., 37. eta 41. artikuluetan ezartzen du Herrizaingoko sailburuaren agindu bidez ezarriko direla bingo-jokoaren modalitate guzietako sarien diru-zenbatekoetatik kendu beharreko ehunekoak.

Agindu honen bidez, dekretu horretan ezarritakoa bete egiten da, sarien ehunekoak garatuz eta zehaztuz.

Horrenbestez, eta indarrean dagoen lege-antolamenduak ematen dizkidan ahalmenet baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Helburua.

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Bingo Jokoaren Araudiko 29.4., 31., 33., 37. eta 41. artikuluetan ezarritakoa garatzea, bingo-jokoaren modalitateei aplikatu beharreko kentze-ehunekoei dagokienez.

**2. artikulua.**— Bingo tradizionalaren sari-banaketa.

Bingo tradizionaleko partida bakoitzaren sarietan banatuko den zenbatekoa hauxe izango da: partidan saldu diren txartelen ageriko balioaren % 64; % 9 lerroari dagokio eta % 55, bingoari.

**3. artikulua.**— Bingo pilatuaren sari-banaketa.

1.— Bingo pilatuaren sariaren zenbatekoa, txartelaren ageriko balioaren % 2 izango da. Zenbateko hori partida bakoitzean deskontatuko da bingorako ehunekotik, eta bingo pilatuaren saria lortuko den partidara arte pilatzen joango da.

2.— Bingo pilatuaren sarirako metatzen joan den zenbatekotik % 15 deskontatuko da saria ematen denean. Zenbateko hori, erreserva-bingo moduan, bingo pilatuaren hasierako kopurua izango da eta

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

978

ORDEN de 8 de febrero de 2010, del Consejero de Interior, por la que se determinan los porcentajes de detracción aplicables a las modalidades del juego del bingo del Reglamento del Juego del Bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Reglamento del Juego del Bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la redacción dada por el Decreto 620/2009, de 15 de diciembre, de tercera modificación del mismo, determina en su artículo 29.4, en relación con los artículos 31, 33, 37 y 41, que por Orden del Consejero de Interior se establezcan los porcentajes de detracción de la cantidad a distribuir en premios en las distintas modalidades del juego del bingo.

Mediante la presente Orden se da cumplimiento a las previsiones establecidas en el citado Decreto, procediéndose al desarrollo y a la concreción de los porcentajes de premios.

Por lo tanto, y en virtud de las facultades que me confiere el ordenamiento jurídico vigente,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Objeto.

Es objeto de la presente Orden desarrollar las previsiones de los artículos 29.4., 31., 33., 37 y 41 del Reglamento del Juego del Bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi en relación a los porcentajes de detracción aplicables a las modalidades del juego del bingo.

**Artículo 2.**— Distribución de premios en el bingo tradicional.

La cantidad a distribuir en premios en cada partida del bingo tradicional consistirá en el 64% del valor facial de las tarjetas vendidas en la misma, correspondiendo el 9% a la línea y el 55% al bingo.

**Artículo 3.**— Distribución de premios en el bingo acumulado.

1.— La cuantía del premio del bingo acumulado será el 2% del valor facial del soporte, y se descontará en cada partida del porcentaje del premio destinado al bingo, acumulándose hasta la partida en que se obtenga el premio del bingo acumulado.

2.— De la cantidad acumulada destinada al premio del bingo acumulado, se descontará, en el momento de entregarse el premio, un 15%, que constituirá, como bingo reserva, la cantidad inicial del bin-

hurrengo partidan lortutakoari gehituko zaio. % 85 irabazleari edo irabazleei emango zaio/zaie.

**4. artikulua.**— Interkonektatutako bingo pilatuaren sari-banaketa.

1.— Partida bakoitzaren sarietan banatuko den zenbatekoa hauxe izango da: partidan saldu diren txartelen ageriko balioaren % 62; % 9 lerroari dagokio eta % 53, bingoari (modalitate guztieta).

2.— Interkonektatutako bingo pilatuaren saria hauxe izango da: joko-modalitate hau duen lokal bakoitzean jokatutako txartel guztien % 0,20 pilatzean lortutakoa.

**5. artikulua.**— Sari berezia.

Sari bereziaren zenbatekoa hauxe izango da: joko-modalitate hau duen lokal bakoitzean jokatu diren txartelen ageriko zenbateko osoaren % 2,80 pilatzean lortutakoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 8a.

Herrizaingoko sailburua,  
RODOLFO ARES TABOADA.

go acumulado, a sumar a la obtenida en la partida siguiente. El 85% se entregará al usuario o usuarios ganadores.

**Artículo 4.**— Distribución de premios en el bingo acumulado interconectado.

1.— La cantidad a distribuir en premios en cada partida consistirá en el 62% del valor facial de las tarjetas vendidas en la misma, correspondiendo el 9% a línea y el 53% al bingo en sus diferentes modalidades.

2.— La cuantía del premio del bingo acumulado interconectado será la que resulte de acumular el 0,20% del total de las tarjetas jugadas en los locales del juego de bingo adheridos a esta modalidad de juego.

**Artículo 5.**— Premio berezia.

La cuantía del premio berezia será la que resulte de acumular el 2,80% del importe facial total de las tarjetas jugadas en cada local de juego que practique esta modalidad de juego.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2010.

El Consejero de Interior,  
RODOLFO ARES TABOADA.